

## ZARAUZKO UDALA

*Santa Barbara eremuan Babes eta Zaintza Plan Berezia. Behin betiko onespena.*

2010eko azaroaren 24an egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udaltzarrak honakoa erabaki zuen:

Udalak hala aginduta eta emandako irizpideak oinarritzat hartuta, Paisaia SL enpresak Santa Barbara Eremua Babestu Eta Zaintzeko Plan Bereziaren proiektua prestatu zuen.

Espedientearen izapidean ondoko egintzak dira azpimarratzekoak:

\* 2009ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea plan bereziaren proposamenari (2009ko iraileko dokumentua).

\* Espedientea jendaurrean egon zen epean, guztira, 9 alegazio-idatzi aurkeztu ziren.

\* Hasierako onespena eman eta gero, beharrezkoak eta egokiak ziren txosten sektorialak eskatu eta jaso ziren, horien artean, ingurumenaren gaineko eraginaren alde aurreko txostena:

\* 2010eko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onspeneko agiriari egindako alegazio eta proposamenak ontzat hartu eta/edo ezestea eta plan bereziari behin-behineko onspena ematea, Paisaia SL enpresak egin zuen dokumentu bateginaren arabera (2010eko otsaileko dokumentua).

\* Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak espedientea eztabaidatu zuen (2010eko uztailaren 22ko 4/2010 bileran). Txostena/erabakia aldekoa izan zen, eta baldintzarik gabekoa.

\* 2010eko abuztuaren 3an, Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak ingurumen eraginaren gaineko behin betiko txostena egin zuen, eta aldekoa izan zen.

\* Hirigintza, Plangintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak txostena egin ondoren, Hirigintza, Obra, Proiektu, Zerbitzu eta Ingurumeneko informazio-batzordeak, 2010eko azaroaren 8an egindako bileran, plan berezia behin betikoz onartzearen aldeko proposamena egin zuen, behin-behineko onspeneko dokumentuaren arabera.

Espedientea aztertu eta aurrez eztabaidatu ondoren, Udaltzarrak, bertaratutako 19 zinegotzien aldeko botoaz eta, beraz, legezko gehiengo osoaren «quorum»az,

## ERABAKI DU

*Lehenengoa.* Behin betiko onspena ematea Udalak sustatu duen Santa Barbara Eremua Babestu Eta Zaintzeko Plan Berezia proiektuari, Paisaia SL enpresak egin zuen eta behin-behineko onartu zen dokumentu bateginaren arabera (2010eko otsaileko dokumentua). Onspena ondorengo baldintzetan eman da:

A. Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurunekeo Ministerioak egindako txostenari erantzuteko, berariaz ondorengo adierazi da:

a. Jabari publiko itsas-lurraldean, esaterako itsas-labarretako landaretza guneeetan, edozein jarduketa egin behar bada, hori egiteko gaitzen duen titulua eduki beharko da.

b. Estatuko Administrazio Orokorrek ez du eragozpenik edukiko Kostaldeko Legearen 111 artikuluan zehaztuta dauden eta bere eskumenekoak diren interes orokorreko obrak egiteko.

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUZ

*Plan Especial de Protección y Conservación del área de Santa Bárbara. Aprobación definitiva.*

El Pleno del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el día 24 de noviembre de 2010, adoptó el siguiente acuerdo:

Por encargo y en base a las directrices dadas por el Ayuntamiento de Zarautz, la empresa Paisaia SL elaboró el proyecto de plan especial de protección y conservación del área de santa bárbara

En la tramitación del expediente destacan las siguientes actuaciones:

\* La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 1 de octubre de 2009, acordó otorgar la aprobación inicial a la propuesta de plan especial (documento de setiembre de 2009).

\* En el período de exposición pública del expediente se presentaron 9 escritos de alegaciones.

\* Tras la aprobación inicial se solicitaron y recibieron los informes sectoriales necesarios y pertinentes, entre ellos, el informe preliminar de impacto ambiental.

\* La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 15 de abril de 2010, acordó estimar y/o desestimar las alegaciones y propuestas presentadas al documento de aprobación inicial y aprobar provisionalmente el plan especial conforme al documento refundido elaborado por la empresa Paisaia SL (documento de febrero de 2010).

\* El expediente fue debatido en la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (sesión 4/2010 celebrada el 22 de julio de 2010). El informe/acuerdo fue favorable, sin condiciones.

\* El 3 de agosto de 2010 se dictó el informe definitivo de impacto ambiental por parte del Departamento de Desarrollo Sostenible de la Diputación Foral, con carácter favorable.

\* Tras informe del servicio municipal de Urbanismo, Planificación y Medio Ambiente la comisión informativa de Urbanismo, Obras, Proyectos, Servicios y Medio Ambiente en sesión de 8 de noviembre de 2010, dictaminó favorablemente la aprobación definitiva del plan especial conforme al documento de aprobación provisional.

Analizado el expediente y previa deliberación, el Pleno del Ayuntamiento, con el voto favorable de los 19 concejales presentes y, por consiguiente, con el «quórum» de la mayoría absoluta legal,

## ACUERDA

*Primero.* Aprobar definitivamente el proyecto de Plan Especial de Protección y Conservación del Área de Santa Bárbara promovido por el Ayuntamiento, conforme al documento refundido aprobado provisionalmente y elaborado por la empresa Paisaia SL (documento de febrero de 2010). La aprobación se otorga con las siguientes condiciones:

A. A efectos de dar respuesta al informe del Ministerio de Medio Ambiente, Medio Rural y Marino, se señala expresamente lo siguiente:

a. Cualquier actuación a realizar en dominio público marítimo-terrestre, por ejemplo en la zona de vegetación de acantilados, deberá contar con el correspondiente título habilitante.

b. La administración General del Estado no tendrá impedimento alguno para realizar las obras de interés general de su competencia, especificados en el artículo 111 de la Ley de Costas.

B. Eusko Jaurlaritzak tramitatzen ari da Garate-Santa Barbara IKLren Kontserbazio Bereziko Eremuaren Kudeaketa Plana. Onartzen denean, haren araudia zuzenean aplikatuko da Zarauzko udalerrian eta, Santa Barbarako Plan Bereziarekin kontraesanak badaude, Kudeaketa Planaren zehaztapenak nagusituko dira.

*Bigarrena.* Behin betiko onespina erabaki eta gero, ondorengo izapideak egingo dira:

— Akordioa jakinaraztea Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari, Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurueneko Ministerioari, eta hasierako onespeneko dokumentuari alegazioak aurkeztu zizkioten interesdunei.

— Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

— Behin betiko akordioaren testu osoa eta plan bereziaren hirigintzako arauak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu emango dira. Halaber, behin betiko onspeneko akordioa lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratu emango da.

— Azkenik, onartutako dokumentua eta espedientea Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaltzea.

Hala jakinarazten da, orok jakin dezan eta ondorio egokiak izan ditzan. Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Nahi duenak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Udaltzarrari, hilabeteko epean, edo zuzenean aurkatu bi hilabeteko epean Bilbon egoitza duen Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan.

Aipatutako epeak iragarki hau argitaratu ematen denetik edo, beranduago egiten bada, interesdunak jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko dira.

Zarauz, 2011ko urtarrilaren 12a.—Jon Urien Crespo, Alkatea.

(251)

(447)

ERANSKINA

## ANTOLAMENDU ARAUAK

## I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

*1.1 artikulua.* *Plan Bereziaren helburua eta antolamendu eremua.*

3. Santa Barbarako Babeserako Plan Bereziak Zarauzko Santa Barbara eremuan balio naturalak, nekazaritza-basogintza balioak nahiz balio sozioekonomikoak, balio paisajistikoak eta erabilera publikoko balioak babestea eta kontserbatzea du helburu. Era berean, indarrean dagoen Zarauzko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (hemendik aurrera ZHAPO) aurreikusitako garapenerako tresna izango da.

4. ZHAPOk ez urbanizagarritzat sailkatutako lurzoruan bakarrik ezarriko da, eta guztira 112,8 hektarea hartuko ditu; lur horiek udalerraren ipar-mendebaldeko muturrean daude, iparraldean itsasoa dute muga, hegoaldean AP-8 autobidea, mendebaldean Getaria eta ekialdean Zarauzko hirigunea.

*1.2 artikulua.* *Plana osatzen duten dokumentuak eta haien interpretazioa.*

1. Plan Berezia honako dokumentu hauek osatzen dute:
2. 0 Liburukia - Plan Bereziaren Aurkibide Orokorra.
3. I Liburukia - Memoria eta Planoak.

B. El Gobierno Vasco está tramitando el Plan de Gestión de la Zona de Especial Conservación del LIC Garate-Santa Barbara. Una vez se apruebe, su normativa será de aplicación directa en el municipio de Zarautz y, en caso de discrepancia con el Plan Especial de Santa Barbara, prevalecerán las determinaciones del Plan de Gestión.

*Segundo.* Una vez acordada la aprobación definitiva se realizarán los siguientes trámites:

— Notificar el acuerdo a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, al Ministerio de Medio Ambiente, Medio Rural y Marino, y a los interesados que presentaron alegaciones al documento de aprobación inicial.

— Remitir el documento aprobado al registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral.

— El contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y las normas urbanísticas del plan especial se publicarán en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Igualmente el acuerdo de aprobación definitiva se publicará en el diario o diarios de mayor difusión del territorio histórico.

— Finalmente, remitir el documento y el expediente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición ante el Pleno del Ayuntamiento, en el plazo de un mes, o impugnarlo directamente, en el plazo de dos meses, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con sede en Bilbao.

Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio o, de ser posterior, al de la notificación individualizada a los interesados.

Zarauz, a 12 de enero de 2011.—El Alcalde, Jon Urien Crespo.

(251)

(447)

ANEXO

## NORMAS DE ORDENACIÓN

## CAPÍTULO I. DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

*Artículo 1.1.* *Naturaleza y ámbito de ordenación del Plan Especial.*

1. El Plan Especial de Protección de Santa Bárbara tiene por objeto la protección y conservación de los valores naturales, agroforestales y socioeconómicos, paisajísticos y de uso público en el área de Santa Bárbara del municipio de Zarautz. Asimismo, constituye el instrumento de desarrollo previsto en el vigente Plan General de Ordenación Urbana de Zarautz (PGOUZ en adelante).

2. Su ámbito de aplicación se limita a suelo clasificado como no urbanizable por el PGOUZ, y abarca un total de 112,8 ha, situadas en el extremo noroeste del municipio, limitando con el mar en su zona norte, con la autopista AP-8 en su extremo sur, con el municipio de Getaria al oeste, y con el casco urbano de Zarautz al este.

*Artículo 1.2.* *Documentación integrante e interpretación de los documentos que lo componen.*

1. El Plan Especial cuenta con los siguientes documentos:
2. Tomo 0 - Índice General del Plan Especial.
3. Tomo I - Memoria y Planos.

a. A0 dokumentua. Informazio eta justifikazio memoria. Plan Berezia idaztea komenigarria dela eta horretarako aukera badagoela justifikatzen du, haren helburuak azaltzen ditu, eta hura izapidetzeko prozedura eta herritarren parte-hartzea deskribatzen ditu.

b. A1 dokumentua. Diagnostia. Santa Barbarako balioak deskribatzen eta aztertzen ditu, eta bertako kontserbazio egoera ebaluatzen du.

c. A2 dokumentua. Proposatutako antolamenduaren helburuak eta justifikazioa. Eremua antolatzeko dauden aukerak adierazten ditu, antolamendu proposamena justifikatzen du, eta antolamendu proposamena aztertzen du, ZHAPOko zonakatezen arabera.

d. A3 dokumentua. Antolamendu arauak. Plan Berezia izatera arauemailea duen dokumentua da, Antolamenduaren Planoak dituen C dokumentuarekin batera; behin betiko onarpenarekin batera argitaratuko da. Honako hauek ditu: Xedapen orokorrak, Santa Barbarako balioetarako ezarritako kalitatezko helburuak, eraikuntzen eta erabileren arautze orokorra, lehentasunez kudeatzeko eremuen zehaztapena, kudeaketa arauak eta lehentasunez kudeatzeko eremuetan egin daitezkeen erabileren arautzea, eta ibilbideen proposamena.

e. A4 dokumentua. Ekintza plana. Nahiz eta ez den arauemailea, Santa Barbararako ezarritako helburuak lortzeko diseinatutako Ekintza Plana behin betiko onarpenarekin batera argitaratuko da. Proposatutako ekintzen zerrendak eta fitxek, Plan Berezia gauzatzeko programak eta inbertsioen aurreikuspenak osatzen dute.

f. A5 dokumentua. Eranskinak. Diagnostiarekin loturiko eranskinak ditu, baita ZHAPOk lurzoru ez urbanizagarriarako ezarritako araudia ere.

g. B dokumentua. Informazio planoak. Ez dira arauemaileak. Grafikoki adierazten dituzte diagnostian aztertutako alderdiak.

h. C dokumentua. Antolamendu planoak. Arauemaileak dira. Grafikoki adierazten dituzte antolamendu proposamena eta lehentasunez kudeatzeko eremuak.

4. II Liburukia - Santa Barbarako Babeserako Plan Berezi Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioa-Azterketa.

5. III Liburukia - Jasotako Alegazioei Erantzuteko Txostena.

6. IV Liburukia - Parte-Hartze Prozesuan Egindako Bileren Aktak.

7. Antolamendu planoetan antolamendu proposamenaren eta lehentasunez kudeatzeko eremuen adierazpen grafikoa agertzen da, 1:2.000 eskalan. Proposatutako antolamenduarekin koherenteak badira, aldatetak egin daitezke lehentasunez kudeatzeko eremuen mugatzean, Plan Bereziaren edukiak garatzeko (esaterako, ekintzak gauzatzeko) egokiak izanez gero; aldateta horiek dagozkien Plan Bereziaren garapen proiektuetan justifikatu behar dira. Aldaketa horiek lehentasunez kudeatzeko eremu bakoitzerako banaka egiten badira, gainerako aldatetekin duten lotura bermatu eta justifikatu behar da, antolamendu bateratua lortzearen.

8. Maila bereko hainbat zehaztapen bat ez badatoz, nagusi izango dira, lehenengo, aginduzko zehaztapenak (deskribatzaileen, informatiboan edo justifikatzaileen aurrean) eta bigarren, grafikoari buruzko dokumentu idatziak, dokumentu

a. Documento A0: Memoria informativa y justificativa. Justifica la conveniencia y oportunidad de la redacción del Plan Especial, expone los objetivos del mismo, y describe el procedimiento seguido para su tramitación y la participación ciudadana.

b. Documento A1: Diagnóstico. Describe y analiza los valores de Santa Bárbara, evaluando su estado de conservación.

c. Documento A2: Objetivos y justificación de la propuesta de ordenación. Formula las alternativas que se abren para la ordenación del ámbito, justifica la propuesta de ordenación, y analiza la propuesta de ordenación respecto a la zonificación del PGOUZ.

d. Documento A3: Normas de ordenación. Constituye el documento con carácter normativo del Plan Especial, junto con el Documento C que contiene los Planos de Ordenación, y será objeto de publicación junto con la aprobación definitiva. Recoge las disposiciones de carácter general, los objetivos de calidad que se fijan para los valores de Santa Bárbara, la regulación general de las edificaciones y usos, la determinación de los ámbitos de gestión prioritarios, las directrices de gestión y la regulación de los usos aplicables a los ámbitos de gestión prioritarios, y la propuesta de itinerarios.

e. Documento A4: Plan de acción. Aun no teniendo carácter normativo, el Plan de Acción diseñado para lograr los objetivos que se marcan para el ámbito de Santa Bárbara será igualmente publicado junto con la aprobación definitiva. Contiene el listado y las fichas de las acciones propuestas, junto con el programa de ejecución del Plan Especial y la previsión de inversiones.

f. Documento A5: Anexos. Contiene anexos relacionados con el diagnóstico, y la normativa del PGOUZ para el suelo no urbanizable.

g. Documento B: Planos de información. No tienen carácter normativo. Representan gráficamente los aspectos analizados en el diagnóstico.

h. Documento C: Planos de ordenación. Con carácter normativo. Representan gráficamente la propuesta de ordenación y los ámbitos de gestión prioritarios.

4. Tomo II – Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental del Plan Especial de Protección de Santa Bárbara.

5. Tomo III - Informe de Contestación A las Alegaciones Recibidas.

6. Tomo IV - Actas de las Reuniones Mantenido en el Proceso de Participación.

7. En los planos de ordenación se refleja la expresión gráfica de la propuesta de ordenación y de los ámbitos de gestión prioritarios, a escala 1:2.000. Siempre que guarden la debida coherencia con la propuesta de ordenación, se permiten variaciones en la delimitación de los ámbitos de gestión prioritarios, si este ejercicio resulta oportuno para el desarrollo de los contenidos del Plan Especial (por ejemplo, para la ejecución de las acciones), debiendo justificarse las citadas variaciones en los correspondientes proyectos de desarrollo del Plan Especial. Si estas variaciones se realizan de forma individual para cada uno de los ámbitos de gestión prioritarios, deberán garantizar y justificar la conexión con las adyacentes, consiguiendo una ordenación unitaria del conjunto.

8. En caso de discrepancia entre determinaciones distintas de igual rango, se dará prevalencia, en primer lugar, a las determinaciones prescriptivas sobre las de carácter descriptivo, informativo o justificativo, y en segundo lugar, a la documenta-

idatzian akats garbia dagoela ikusten ez bada behintzat. Nolanahi ere, arauen arteko desberdintasunak edo kontraesanak izanez gero, Plan Bereziaren antolamendu proposamenarekin koherentea den irtenbidea hautatuko da beti, edo halakorik izan ezean, balio naturalen kalitatea hobetuko duen edo interes publiko handiena duen irtenbidea.

### 1.3 artikulua. Indarraldiaren baldintzak.

Plan Berezia behin betiko onartzen dutenean, eta behin betiko onarpena nahiz Arau hauen testu osoa behar bezala argitaratzen dituztenean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da berau aldatu arte.

### 1.4 artikulua. Koordinazioa beste lurralde plan batzuekin eta udalerriko plangintzarekin.

1. Aplikazio eta eragin zuzeneko arau lotesleak diren lurralde antolamendurako planen zehaztapenak (Lurralde Plan Partzialak, Lurralde Plan Sektorialak) nagusitu egingo dira Plan Berezi honetan, haien kontrakoak edo haiekin bateraezinak diren Arauen aurrean.

2. Plan Berezian zehaztu ez diren alderdietan eta, oro har, lotesleak ez diren alderdietan, ZHAPO eta lurzoruaren erregimenari eta hiri antolamenduari buruzko legedi orokorra ezarriko dira, baita izaera sektorialeko legedi zehatza (errepideak, kostaldeak, urak, ondare kulturala, etab.) eta Santa Barbararekin zerikusia duten alderdi zehatzak arautzen dituen gainetako udalaz gaindiko araudia ere.

## II. KAPITULUA. KALITATE HELBURUAK

### 2.1 artikulua. Kalitate helburuak, balio naturalei dagokienez.

Honako kalitate helburu hauek proposatu ditugu:

- a) Lehentasuna ematea artelatzen basoaren kontserbazioari, balio naturalekin loturiko gainerako helburuen aurrean.
- b) Oro har bertako basoen eta, bereziki, artelatzen basoen azalera handitzea, bai eremuen kopuruan, bai eremuen tamainan.
- c) Oro har bertako basoen eta, bereziki, artelatzen basoen arteko lotura hobetzea.
- d) Oro har bertako basoen eta, bereziki, artelatzen basoen egitura anitzagoa lortzea.
- e) Igerain errekarari lotutako ibai habitata eta Zingirako hezegunea kontserbatzea, bertan dagoen zonarik gabeko landaredia indartuz.
- f) Santa Barbarako balio naturalak egokiro babestea, bai udal araudian, bai udalaz gaindiko araudian (batez ere, Natura 2000 Sarearekin zerikusia duen araudian).
- g) Larreei lotutako Garrantzi Komunitarioko Habitategen hartzeko dituzten lursailetan abeltzaintza estentsiboa sustatzea.
- h) Biodibertsitatea iraunarazteko ekarpen erabakigarriak egiten dituzten landa paisaia tradizionalako elementuak kontserbatzea (landaresiak, zuhaitz isolatuak, harri lehorreko hormak, iturriak eta askak, etab.).
- i) Lurren kalitatea mantentzea, eta higadura prozesuak, egituraketaren bat-bateko aldaketak eta kutsadura ekiditea.
- j) Lurren jabeak eta nekazaritza ustiapenen titularrak Santa Barbarako balio naturalen gainean sentiberatzea, artelatzen basoaren gainean, bereziki.

ción escrita sobre la gráfica, salvo que se aprecie claramente la comisión de error en la documentación escrita. En todo caso, las disparidades o contradicciones que pudiera haber entre las normas se resolverán siempre a favor de la solución que sea más coherente con la propuesta de ordenación del Plan Especial, o en su defecto, de la que suponga una mejora en la calidad de los valores naturalísticos, o resulte de mayor interés público.

### Artículo 1.3. Condiciones de vigencia.

El Plan Especial entrará en vigor una vez sea aprobado definitivamente, se publique en debida forma tanto el acuerdo de aprobación definitiva como el texto íntegro de las presentes Normas, y mantendrá su vigencia hasta su modificación.

### Artículo 1.4. Coordinación con otros planes territoriales y el planeamiento municipal.

1. Las determinaciones de los planes de ordenación territorial (Plan Territorial Parcial, Planes Territoriales Sectoriales) que tengan el carácter de normas vinculantes de aplicación y eficacia directa prevalecerán sobre las Normas del presente Plan Especial que sean contrarias o incompatibles con aquellas.

2. En los extremos no especificados en el Plan Especial y, en general, en los aspectos que sean de carácter vinculante serán de aplicación el PGOUZ y la legislación general sobre régimen de suelo y ordenación urbana, la específica de carácter sectorial (carreteras, costas, aguas, patrimonio cultural, etc.) así como el resto de normativa supramunicipal que regule aspectos específicos vinculados a Santa Bárbara.

## CAPÍTULO II. OBJETIVOS DE CALIDAD

### Artículo 2.1. Objetivos de calidad respecto a los valores naturalísticos.

Se plantean los siguientes objetivos de calidad:

- a) Dar prioridad a la conservación del alcornocal respecto al resto de objetivos relacionados con los valores naturalísticos.
- b) Aumentar la superficie que ocupa el bosque autóctono en general, y el alcornocal en particular, tanto en número de manchas, como en la superficie de las mismas.
- c) Mejorar la conectividad entre las manchas de bosque autóctono en general, y el alcornocal en particular.
- d) Lograr una mayor diversidad estructural en el bosque autóctono en general, y el alcornocal en particular.
- e) Conservar el hábitat fluvial ligado a la regata de Igerain, y el humedal de Zingira, potenciando la vegetación azonal en los mismos.
- f) Proteger adecuadamente los valores naturalísticos de Santa Bárbara, tanto en la normativa municipal, como en la normativa supramunicipal (especialmente en la normativa relacionada con la Red Natura 2000).
- g) Potenciar la ganadería extensiva en las parcelas ocupadas por los Hábitats de Interés Comunitario ligados a prados.
- h) Conservar aquellos elementos del paisaje rural tradicional que realizan una aportación decisiva a la conservación de la biodiversidad (setos, árboles aislados, muros de piedra seca, fuentes y abrevaderos etc.).
- i) Conservar la calidad de los suelos, evitando los procesos erosivos, las alteraciones drásticas de su estructura, y la contaminación.
- j) Sensibilizar a los propietarios de suelo y titulares de explotaciones agrarias sobre los valores naturalísticos de Santa Bárbara, especialmente del alcornocal.

k) Santa Barabarako balio naturalak herritarrei jakinaraztea, balioen kontserbazioari kalterik eragin gabe.

*2.2 artikulua. Kalitate helburuak, nekazaritza-basogintza balioei dagokienez.*

Honako kalitate helburu hauek proposatu ditugu:

a) Landa lurretan ezarritako nekazaritza ustiapenen iraunkortasuna sustatzea.

b) Errentagarritasun ekonomiko handiena duten laborantzen azalera mantentzea; izan ere, ezinbestekoak dira nekazaritza ustiapenak bideragarri izateko.

c) Lurren kalitatea mantentzea, eta higadura prozesuak, egituraketaren bat-bateko aldaketak eta kutsadura ekiditea.

d) Aisia, kirol eta turismo jarduerak eta erabilerak onartzea, landa ingurunean erabileretan eta bertako biztanleengan eragin kaltegarririk izan gabe.

e) Abeltzaintzako erabilera iraunkorra sustatzea, abereen karga larreen azalerara egokituz.

f) Nekazaritza-abeltzaintza jarduerak nahiz hiriko jarduerak sortzen dituzten hondakinen kudeaketa ona bermatzea.

g) Nekazaritza ustiapenei nahiz auzoko biztanleei zerbitzua eskaintzen dieten azpiegiturak mantentzea eta hobetzea.

*2.3 artikulua. Kalitate helburuak, paisaia eta aisia balioei dagokienez.*

Paisaiari eta aisia erabilerei dagokienez, helburu nagusiak paisaiaren kalitatea mantentzea eta hobetzea izan behar du oinarri, eta horretarako beharrezkoa izango da:

a) Kalitate eta hauskortasun paisajistiko handiena duten zonak babestea, herritar gehienek ikusten dituzten zonetan paisaiaren kalitatea mantenduz, eta paisaian eragin kaltegarriak izango dituen elementuak haietan ezartzea ekidinez.

b) Hauskortasun paisajistiko handieneko guneetan egingo diren ekintzak paisaian egokiro integratuko direla bermatzea.

c) Itsasorako bistak eta Zarauzko badia bere horretan mantentzea.

d) Paisaia moten aniztasuna mantentzea, eta horretarako paisaiaren landa izaera babestea eta indartzea, eta etengabeko urbanizazioa ekiditea.

e) Paisaiaren degradazio prozesuak geldiaraztea, paisaiaren kalitatean eragin negatiboak arintzea eta zuzentzea, eta beste elementu batzuek izan dezaketen eragina aurreikustea.

f) Eremuko elementu bereziak kontserbatzea eta balioestea (mugarri kulturalak edo naturalak).

g) Aisia erabilera bateragarri egitea balio paisajistikoekin eta paisaiaren kalitatearekin, besteak beste, eta oinezkoen mugikortasuna sustatzea horretarako.

Paisaia eta aisia balioei dagokienez ezarritako beste helburu orokor batzuek hauek dira:

h) Herritarrek paisaia eskura izan dezatela bermatzea.

i) Herritarren parte-hartzea kontuan hartzea paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko.

k) Dar a conocer los valores naturalísticos de Santa Bárbara a la ciudadanía, sin que esto vaya en detrimento de la conservación de los mismos.

*Artículo 2.2. Objetivos de calidad respecto a los valores agroforestales.*

Se plantean los siguientes objetivos de calidad:

a) Favorecer la permanencia de las explotaciones agrarias implantadas en el suelo rural.

b) Conservar la superficie de los cultivos de mayor rentabilidad económica, porque resultan vitales para la viabilidad de las explotaciones agrarias.

c) Conservar la calidad de los suelos, evitando los procesos erosivos, las alteraciones drásticas de su estructura, y la contaminación.

d) Dar cabida a las actividades y usos relacionados con el ocio, el esparcimiento, el deporte y el turismo de forma que no repercutan negativamente en los usos del medio rural ni en la vida de sus habitantes.

e) Potenciar el uso ganadero sostenible, adecuando la carga ganadera a la superficie de pasto.

f) Garantizar la buena gestión de los residuos tanto debidos a la actividad agroganadera como a la urbana.

g) Mantenimiento y mejora de las infraestructuras que dan servicio a las explotaciones agrarias y a los habitantes del barrio.

*Artículo 2.3. Objetivos de calidad respecto a los valores paisajísticos y recreativos.*

El principal objetivo en relación con el paisaje y los usos recreativos debe centrarse en conservar y mejorar la calidad del paisaje, para lo que será necesario:

a) Proteger las zonas de mayor calidad y fragilidad paisajística, conservando la calidad del paisaje en las zonas más visibles para la mayoría de la ciudadanía, y evitando ubicar elementos con incidencia negativa sobre el paisaje en las mismas.

b) Garantizar la adecuada integración paisajística de las actuaciones que se lleven a cabo en las zonas de mayor fragilidad paisajística.

c) Conservar las vistas sobre el mar y la ensenada de Zarautz.

d) Mantener la diversidad de los tipos de paisaje, salvaguardando y reforzando el carácter rural del paisaje, evitando su progresiva urbanización.

e) Frenar los procesos de degradación paisajística, mitigar y corregir los impactos negativos sobre la calidad del paisaje, y prevenir la incidencia de nuevos elementos de impacto.

f) Conservar y poner en valor los elementos singulares presentes (hitos culturales o naturales).

g) Compatibilizar el uso recreativo con la conservación de los valores paisajísticos y de la calidad del paisaje, entre otros, fomentando la movilidad peatonal.

Otros objetivos generales que se establecen respecto a los valores paisajísticos y recreativos son los siguientes:

h) Garantizar el acceso de la ciudadanía al paisaje.

i) Integrar la participación pública en la protección, la gestión y la ordenación del paisaje.

*2.4 artikulua. Kalitate helburuak, balio arkitektonikoei eta kulturalei dagokienez.*

Honako kalitate helburu hauek proposatu ditugu:

i) Egin beharreko eraikin osagarriek multzo arkitektonikoaren hierarkia formala eta bolumetrikoa hankaz gora jar dezatela ekiditea (gorputz nagusia edo jatorrizko baserria errespetatzea, bai bolumetriari, bai teiltatuen kokalekuari dagokienez); lehengo baserriari atxikita ez dauden eraikin erantsiak sustatzea.

j) Erantsiak eraikitzean sortutako multzoetan erabilgarriak ez diren eta zentzu arkitektonikorik ez duten espazioak ekiditea; espazio komun zentzudunak eta funtziodunak sustatzea (baserriaren atearen funtzio sinbolikoa ez oztopatzea, garajeetako portaleei lehtasunik ez ematea, eraikin berriekin «patioak» sortzeko joera izatea).

k) Erantsien aurrealdeetan eta estalkietan abstrakzioa sustatzea; eskalatik kanpo dauden edo etxetiarrak ez diren hutsuneak edo elementuak ekiditea (nabe berriek ezin dituzte XVII. mendeko hutsuneak izan).

l) «Landatar itxurako» eta zakartasun faltsuko akaberak ekiditea, XXI. mendeko teknologia eta materialak erabilia erakitako erantsietan.

m) Egingo diren eraikinak argi eta garbi tokiko topografiaren aurkakoak izatea ekiditea: Lur mugimendu handiak, harri lubeta ikaragarriak eta eragin bisual handia duten gainerako ekintzak ekiditea, bai eraikuntzetan, bai erantsietan, nekazari-tza-basogintza instalazioetan eta sistema anitzetan.

n) «Txabolismoa» ekiditea eta eraztea: Gaizki kokatutako eraikuntzak, egikera formal ezin txarragoak eta hondakin materialeraz eginak

o) «Urbanizazio efektua» eragozteko: Lursailen muga handiak, garaiak eta zeharkaezinak, bistak eragozten dituztenak; ate handiak; eraikin nagusia 100 metro barrura kokatua. Eskala gizatiarragoa eta tradizionalagoa duten kokalekuak sustatzea: Gutxienez eraikinaren alde bat hiribidetik gertu egotea, zona publikoagoak, zona mistoak eta zona oso pribatuak sortzeko.

p) Santa Barbarako ermita, begiralekuaren aurreproiektua: Proposatutako ekintza beharrezkoa den arren eta lekuaren izaerarekin bat datorren arren, zenbait alderdik halako «gain-presentzia» sortzen dute: Leku horretan 4 plataforma egokitzea eta integratzea eztabaidagarria da; baranda gurutzadunek protagonismo formal handia dute (protagonismo gutxiago izan lezaketekete).

i) 6. ekintza: Txerritegia egokitzea. Elementu txiki hori lehengoratzeko, esaterako, abstrakzio maila handiagoa erabil genezake, hark presentzia xumeagoa izan dezan: Bi isurkiko estalkiak protagonismo formal handiagoa emango dio isurki bakarrekoak baino, hutsuneek oso itxura etxetiarra dute.

### III. KAPITULUA. ERABILERA KUDEATZEKO ETA ARAUTZEKO ARAUAK

*3.1 artikulua. Eraikuntzen eta erabileren araudi orokorra.*

1. Oro har, erabileren definizioari eta sistematizazioari, lizentzien eta baimenen erregimen orokorrari, eta dauden eraikuntzen nahiz eraikiko direnen erregimenari dagokienez, ZHAPOk 9.2-9.5 kapituluetan ezarritakoa aplikatuko da. Plan Bereziak ez du aldaketarik proposatzen ZHAPOk definitutako zonakatzean.

*Artículo 2.4. Objetivos de calidad respecto a los valores arquitectónicos y culturales.*

Se plantean los siguientes objetivos de calidad:

a) Evitar que las construcciones auxiliares a realizar tras-tuquen la jerarquía formal y volumétrica del conjunto arquitectónico (respeto al cuerpo principal o caserío-madre, tanto volumétrico como de posición de los tejados); promover la implantación de nuevos anexos que no estén pegados al caserío antiguo

b) Evitar espacios no útiles y sin sentido arquitectónico en los conjuntos creados a partir de la construcción de anexos; promover espacios comunes con sentido y función (no entorpecer la función simbólica de la puerta del caserío, no dar prioridad en presencia a los portales de los garajes, tender a crear «patios» con los nuevos anexos.)

c) Promover la abstracción en las fachadas y cubiertas de los anexos; evitando huecos o elementos fuera de escala o irrealmente domésticos (las naves nuevas no pueden tener huecos de caserío del siglo XVII).

d) Evitar los acabados «ruralizantes» y falsamente toscos en los nuevos anexos construidos con tecnología y materiales del siglo XXI.

e) Evitar que las edificaciones a realizar vayan manifiestamente en contra de la topografía del lugar: Evitar así los grandes movimientos de tierras, las escolleras inverosímiles y demás operaciones de gran impacto visual; tanto en edificaciones como en anexos, instalaciones agroforestales e incluso sistemas viarios.

f) Evitar y erradicar el «txabolismo»: Edificaciones mal situadas, de pésima factura formal, materiales de desecho.

g) Impedir el «efecto urbanización»: Límites de parcela potentes, altos, infranqueables, y que impiden cualquier tipo de visión; con una gran puerta y la edificación principal situada 100 metros al interior; promover ubicaciones de escala más humana y más tradicionales: Que al menos un lado de las edificaciones se sitúen próximas a la vía urbana, generando zonas mas públicas, zonas mixtas y zonas ya muy privadas.

h) Ermita de Santa Bárbara, anteproyecto mirador: Si bien la actuación propuesta es necesaria y acorde con el carácter del lugar, hay algunos aspectos que generan una «sobre-presencia»: La adecuación e integración en el lugar de la plataforma 4 es algo discutible; las barandillas con aspas tienen un gran protagonismo formal (que podría ser más moderada),

i) Actuación 6: Adecuación porqueriza: La restauración de este pequeño elemento, por ejemplo, podría realizarse con un grado mayor de abstracción para que su presencia fuera menos potente: Quizá la cubierta a dos aguas le confiera un protagonismo mayor que a una sola, los huecos parecen muy domésticos.

### CAPÍTULO III. DIRECTRICES DE GESTIÓN Y REGULACIÓN DE LOS USOS

*Artículo 3.1. Regulación general de edificaciones y usos.*

1. Como norma general, en lo que se refiere a la definición y sistematización de los usos, el régimen general de licencias y autorizaciones, el régimen de las edificaciones existentes, y las edificaciones de nueva construcción, se estará a lo establecido en el PGOUZ en los Capítulos 9.2 a 9.5. El presente Plan Especial no introduce cambio alguno en la zonificación definida por el PGOUZ.

2. ZHAPOK higa daitezkeen edo higitzeko arriskua duten eremuen baldintza gainjarriaren barruan kokatu dituen zonen kasuan, lur mugimenduak sorraziko dituzten erabilerak, jarduerak, lanak edo arriskuak izanez gero, lurzoru ez urbanizagarrietako lizentzia eskaerarekin batera ingurumen azterketa osagarriak ere aurkeztu beharko dira, luraren gaineko eragina eta higadura arriskua ebaluatzeko. Lurraren gaineko eraginak eta higadura arriskua oinarri dituzten azterketa horien edukia ZHAPOko 9.3.04 artikulua ezarritakoaren antzekoa izango da. Ingurumen azterketaren edukia ekintzak baimentzeko hartutako ebazpen administratiboari atxiki behar zaio. Udalak bere gain hartuko du agindu daitezkeen baldintzak betetzen direla kontrolatzeko ardura, eta proiektuari uko egin diezaiolke lurrean eragin atzeraezina badu edo luraren gaineko eraginak eta higadura arriskua zehazteko nahikoa informazio eskaintzen ez badu.

3. Aisialdi estentsiboari lotutako bideen aldaketa eta/edo egokitzapenarekin erlazionatutako proiektuek ZHAPOren 9.3.04 Artikuluak ezartzen dituen ingurumen txostenen edukien analogoa den ingurumen txostena eduki beharko dute. Ingurumen azterketaren edukia jarduera baimenduko duen ebazpen administratiboan gehitu beharko da. Udaletxeak ezarri daitezkeen baldintzen zaintza eta kontrola onartuko du, eta proiektua baztertu ahal izango du honek ingurumen edo paisaia baloreetan eragin itzulezinak sortzen baditu, edo hauen gainean egongo diren inpaktuak zehazteko informazio nahikoa ez badu.

4. Edozein motatako ibilgailuek, motordunek nahiz bizikletak, bide, ateratze bide eta aparkaleku gune baimenduak bakarrik erabili ahal izango dituzte aisia helburuarekin zirkulatzeko eta aparkatzeko.

5. Azpiegituren erabilera edo jarduera ororekin zerikusia duten birlandatzeak edo lehengoratze paisajistikoak artelatza eta zonako baso autoktonoetako berezko espezieak erabilia egingo dira, nahi eta nahi ez, Plan Bereziaren eremu osoan. 18. taulan ikus dezakegu birlandatzeak egiteko espezie egokien zerrenda; ez da zerrenda mugatua.

2. Dentro de las zonas englobadas en el condicionante superpuesto de áreas erosionables o con riesgo de erosión que establece el PGOUZ, para aquellos usos, actividades, obras o instalaciones cuya ejecución o puesta en marcha implique llevar a cabo movimientos de tierras, la solicitud de licencias en suelo no urbanizable ira acompañada de estudios ambientales complementarios que permitan evaluar el impacto sobre el suelo y el riesgo de erosión. El contenido de estos estudios ambientales centrados en las afecciones sobre el suelo y el riesgo de erosión, será análogo al de los informes ambientales que establece el Artículo 9.3.04 del PGOUZ. El contenido del estudio ambiental deberá incorporarse al de la resolución administrativa que se adopte para autorizar dicha actuación. El Ayuntamiento asumirá la vigilancia y control del cumplimiento de las condiciones que pudieran imponerse, y podrá rechazar el proyecto si se afecta irreversiblemente al suelo o si carece de la información suficiente para determinar los impactos sobre el suelo y el riesgo de erosión.

3. Así mismo, los proyectos relacionados con la adecuación y/o modificación de caminos e infraestructuras ligadas al recreo extensivo ya existentes, deberán incluir un informe ambiental cuyo contenido sea análogo al de los informes ambientales que establece el Artículo 9.3.04 del PGOUZ. El contenido del estudio ambiental deberá incorporarse al de la resolución administrativa que se adopte para autorizar dicha actuación. El Ayuntamiento asumirá la vigilancia y control del cumplimiento de las condiciones que pudieran imponerse, y podrá rechazar el proyecto si se afecta irreversiblemente a los valores ambientales o paisajísticos, o si carece de la información suficiente para determinar los impactos sobre los mismos.

4. La circulación y el estacionamiento con fines recreativos de todo tipo de vehículos, tanto provistos de motor como bicicletas, sólo podrá realizarse dentro de los caminos, vías de saca y zonas de aparcamiento autorizados.

5. Las revegetaciones y restauraciones paisajísticas relacionadas con todo uso o actividad de Infraestructuras obligatoriamente utilizarán alcornos y especies propias del bosque autóctono de la zona, en todo el ámbito del Plan Especial. En la Tabla 18 se recoge una relación de especies adecuadas para estas revegetaciones, si bien no pretende ser un listado cerrado.

18. TAULA. SANTA BARBARAN BIRLANDAKETAK ETA LEHENGORATZE PAISAJISTIKOAK EGITEKO ESPEZIE EGOKIAK		
Quercus suber	Castanea sativa	Frangula alnus
Q. ilex	Laurus nobilis	Corylus avellana
Q. pyrenaica	Ilex aquifolium	Smilax aspera
Q. robur	Salix atrocinerea	Rubia peregrina
Betula celtiberica	Arbutus unedo	Hedera helix
Fraxinus excelsior	Crataegus monogyna	Ruscus aculeatus
Alnus glutinosa	Cornus sanguinea	
Iturria: lan taldea		

TABLA 18. ESPECIES ADECUADAS PARA REVEGETACIONES Y RESTAURACIONES PAISAJÍSTICAS EN SANTA BÁRBARA

Quercus suber	Castanea sativa	Frangula alnus
Q. ilex	Laurus nobilis	Corylus avellana
Q. pyrenaica	Ilex aquifolium	Smilax aspera
Q. robur	Salix atrocinerea	Rubia peregrina
Betula celtiberica	Arbutus unedo	Hedera helix
Fraxinus excelsior	Crataegus monogyna	Ruscus aculeatus
Alnus glutinosa	Cornus sanguinea	
Fuente: Elaboración propia		

6. Santa Barbaran erabiliko den artelatz landare guztiak Garate - Santa Barbarako GKL eremuan jasotako hazia izango du jatorri, eta jatorri hori ziurtatu egingo da.

7. »Hezegunea lehengoratzeko eremua» izeneko lehentasuneko kudeaketa eremuan, erabilera, eraikuntza eta lan erregimena honako hau izango da:

a. Laguntza izango duten erabilerak: Ekosistemak konserbatzeko eta ingurumena hobetzeko jarduerak bakarrik erraztuko dira, eta horiek ere kontrolatu egingo dituzte erakunde publikoek.

b. Gainerako erabilera guztiak debekatuta daude.

8. Plan Bereziak hartzen duen gainerako eremuan, erabilera, eraikuntza eta lan erregimena ZHAPOK zehaztutakoa izango da, erabilera publiko intentsiboa izan ezik, Plan Bereziaren eremu osoan debekatuta baitago.

20. Jabari itsas-lehortar publikoaren babesa dela eta, Plan Bereziaren kudeaketarako eta itsasertzeko lurrei dagokienez, ondoko baldintzak beteko dira:

a) Itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilera Kosta Legean - 22/88 Legean - zehaztutakoaren arabera erregulatuko da.

b) Babesteko zortasun-zonako erabilerak Kosta Legearen 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoari egokituko zaizkio. Zona horretan baimentzen diren erabilerak, bestalde, Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren baimena eduki beharko dute, betiere Kosta Legearen Erreglamendua zati batean aldatzen duen 1112/92 Erege Dekretuaren 48.1. eta 49. artikuluetan finkatutakoaren arabera.

c) Kosta Legearen 27. eta 28. artikuluetan ezartzen diren igarotzeko eta itsasoratzeko zortasunak, hurrenez hurren, errespetatzen direla bermatu beharko da, baita Legearen 30. artikuluan - eta horrekin bat egiten duten haren Erreglamenduen artikuluetan - zortasun-eremurako adierazten diren baldintzak ere.

d) Kosta Legea indarrean jartzean, jabari publikoko zonan edo zortasun-zonan zeuden obrak eta instalazioak, bestalde, Kosta Legearen Xedapen Iragankorrean zehaztutakoaren arabera erregulatuko dira.

e) Saneamendu-sareko instalazioek Kosta Legearen 44.6. artikuluan eta harekin bat egiten duten artikuluetan aditza emandako baldintzak bete beharko dituzte.

6. Toda la planta de alcornoque que se utilice en Santa Bárbara provendrá de semilla recogida en el ámbito del LIC Garate - Santa Bárbara, y tendrá su origen certificado.

7. En el ámbito de gestión prioritario denominado «Ámbito de restauración de humedal», el régimen de usos, edificación y obras será el siguiente:

a. Usos propiciados: Se propiciarán exclusivamente las actividades de conservación y mejora ambiental de los ecosistemas y, aún éstas, sometidas a control por parte de los organismos públicos.

b. Se consideran prohibidos el resto de usos.

8. En el resto del ámbito del Plan Especial, el régimen de usos, edificación y obras será el que está determinado en el PGOUZ, con la excepción del uso público intensivo que queda prohibido en todo el ámbito del Plan Especial.

9. Por razones de protección del dominio público marítimo-terrestre, para la gestión del Plan Especial y en relación con los terrenos contiguos a la ribera del mar, se deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) La utilización del dominio público marítimo-terrestre se regulará según lo especificado en el Título III de la Ley 22/88 de Costas.

b) Los usos en la zona de servidumbre de protección se ajustarán a lo dispuesto en los artículos 24 y 25 de la Ley de Costas, debiendo contar los usos permitidos en esta zona con la autorización del órgano competente de la Comunidad Autónoma, de conformidad con lo determinado en los artículos 48.1 y 49 del Real Decreto 1112/92 por el que se modifica parcialmente el Reglamento de la Ley de Costas.

c) Se deberá garantizar el respeto de las servidumbres de tránsito y acceso al mar establecidas en los artículos 27 y 28 de la Ley de Costas, respectivamente, y el cumplimiento de las condiciones señaladas en el artículo 30 de la Ley para la zona de influencia, y concordantes de su Reglamento.

d) Las obras e instalaciones existentes a la entrada en vigor de la Ley de Costas, situadas en zona de dominio público o de servidumbre, se regularán por lo especificado en la Disposición Transitoria de la Ley de Costas.

e) Las instalaciones de la red de saneamiento deberán cumplir las condiciones señaladas en el artículo 44.6 de la Ley de Costas y concordantes de su Reglamento.

10. Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru-Arauaren Testu Bateginak, ekainak 6ko 1/2006 Foru-Dekretu Araugilearen bitartez onartutakoa, ezarritako zortasunak errespetatuko dira.

11. Garate - Santa Barbara LICaren mugen barnean 42/2007 Legearen 45.4 artikuluan ezarritako prebentzio erregimena aplikatu behar da, batez ere azpiegitura eta eraikuntza erabilerei dagokionez.

*3.2 artikulua. Lehentasunez kudeatzeko eremuak zehaztea.*

1. Antolamendu proposamenaren esparruaren barruan, badira lehentasunez kudeatu beharreko zenbait eremu; C.1, C.2 eta C.3 Antolamendu Planoetan islatuta daude, eta horien kudeaketarako zenbait arau definituko ditugu eta erabilerak arautuko ditugu:

- a. Bertako basoak kontserbatzeko eremua.
- b. Baso landaketa helduak bertako baso bihurtzeko eremua.
- c. Moztu berri diren baso landaketak bertako baso bihurtzeko eremua.
- d. Beste landaredia formazio eta erabilera batzuk bertako baso bihurtzeko eremua.
- e. Itsasora begirako larreak kontserbatzeko eremua.
- f. Hezegunea lehengoratzeko eremua.

2. Hezegunearen berriztapenak Zingira baserriaren ondoan dagoen zona bat barne hartzen du. Lehentasunezko gestio eremu honen ipar-ekialdeko muga baserriaren ekialdeko eta mendebaldeko fatxadetatik 5 metrotara aurkitzen da. Honen adierazpen grafikoa egiteko dauden zailtasunen ondorioz, 1.2 Artikuluaren 8. atala aplikatzea oso garrantzitsua gertatzen da.

*3.3 artikulua. Lehentasunez kudeatzeko eremuetan lurra babesteko aplikatu beharreko mekanismoak.*

1. Ia ez dago lursail publikorik Santa Barbaran. Beraz, lehentasunez kudeatzeko eremuek hartzen dituzten lur gehienek jabe pribatuak dituzte. Horrek esan nahi du Plan Berezi honen edukiak garatu eta helburuak lortu ahal izateko, behar-beharrezkoa izango dela Zarauzko Udalak lursail horien jabeekin hitzarmenak egitea.

2. Beraz, aurreikusten dugu Zarauzko Udalak lurraldea zaintzeko hainbat mekanismo ezartzea sustatuko duela, Santa Barbarako balioak kontserbatzearen; horretarako, beste erakunde pribatu batzuen nahiz beste administrazio publiko batzuen esku-hartzea ere bilatu ahal izango du. Jarraian adieraziko ditugu proposatuko ditugun mekanismo nagusiak, baina horrek ez du esan nahi Zarauzko Udala eta Santa Barbarako lursailen jabeak harremanetan jartzen direnean beste batzuk proposa ez daitezkeenik.

a) Babes hitzarmenak, kudeaketa eskualdatu gabe: Lursailaren kudeaketak jabearen esku jarraituko du, eta Lurra Babesteko Kontratuan ezarritako aplikatu beharreko kudeaketa baldintzak; Zarauzko Udalak emango du kudeaketarako aholkua. Udalak zainduko du hitzarmenaren baldintzak betetzea, eta horretarako harreman erregularra izango du jabeekin eta lursailen segimendua egingo du.

b) Babes hitzarmenak, kudeaketa eskualdatuta: Zarauzko Udalak lursailaren kudeaketa osoa edo partziala bere gain hartuko du, eta hitzartutako baldintzen arabera kudeatzeko konpromisoa hartuko du. Akordio horiek garatzeko hainbat bide daude:

10. Se respetarán las servidumbres impuestas por el Texto Refundido de la Norma Foral de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa, aprobada por Decreto Foral Normativo 1/2006 de 6 de junio.

11. Dentro de los límites del LIC Garate – Santa Bárbara, será obligatorio aplicar el régimen preventivo establecido en el artículo 45.4 de la Ley 42/2007, en especial respecto de los usos constructivos y de infraestructuras.

*Artículo 3.2. Determinación de los ámbitos de gestión prioritarios.*

1. Dentro del marco de la propuesta de ordenación, se establecen unos ámbitos de gestión prioritarios, reflejados en los Planos de Ordenación C.1, C.2 y C.3, para los que se definen una serie de directrices de gestión y se regulan los usos:

- a. Ámbito de conservación del bosque autóctono existente
- b. Ámbito de conversión de plantaciones forestales maduras en bosque autóctono
- c. Ámbito de conversión de plantaciones forestales taladas recientemente en bosque autóctono
- d. Ámbito de conversión de otras formaciones vegetales y usos en bosque autóctono
- e. Ámbito de conservación de prados abiertos al mar
- f. Ámbito de restauración del humedal

2. El ámbito de restauración del humedal comprende una zona junto al caserío Zingira. El límite del ámbito de gestión prioritario en su extremo noroeste se sitúa a 5 metros de las fachadas este y sur de la citada edificación. Por dificultades técnicas para su expresión gráfica, respecto de este límite resulta especialmente relevante aplicar el apartado 8 del Artículo 1.2 de las presentes Normas de Ordenación.

*Artículo 3.3. Mecanismos de custodia del territorio a aplicar en los ámbitos de gestión prioritarios.*

1. Apenas existen parcelas de titularidad pública en Santa Bárbara. Por tanto, la mayor parte del suelo que engloban los ámbitos de gestión prioritarios está en manos de privados. Esto quiere decir que para que el Ayuntamiento de Zarautz pueda desarrollar los contenidos de este Plan Especial y lograr los objetivos que se fijan en él, resulta obligado llegar a acuerdos con los propietarios de las parcelas concernidas.

